



2009KO AZAROAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko azaroaren hamabian, iluntzeko sei terdian, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauri eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2009ko urriaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEITA HAMALAU MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO eta HOGEITA HAMABI ZENTIMO (54.394,32,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-005 zbk.dun esped.: zerbitzua astelehenetik ostiralera egunero ordu erdiz handitzea. onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

- 796 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea zaharren egoitzara joan delako.

Minusbalituen aparkatzeko txartela.-

- 09-02-00016 zbk.dun esped.: aparkaleku txartela ematea, mugikortasun baremoko gutxieneko puntuazioara iristen delako.

- 09-02-00015 zbk.dun esped.: aparkaleku txartela ematea, mugikortasun baremoko gutxieneko puntuazioara iristen delako.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-



Euskarako eskoletara joateagatik.-

Euskara Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobenu Batzarrak honako erabakia hartzen du: 2008-2009 ikasturtean euskara eskoletara joan diren herritarrei dirulaguntza ematea, horretarako dauden arauak jarraiki. Guztira 12 lagun dira proposamen orriari erantsitako orrietan ikus daitekeen modura eta guztira 1.794,71 € emango zaizkie. Langabezia daudenei matrikula kostuaren %60 eta gainontzekoei matrikula kostuaren herena.

Goierriko Hitza egunkariari.-

Goierriko Hitzarekin GOIEKIren bidez izenpetu zen hitzarmenean adostaturakoari jarraiki, hau da, urtean biztanleko 2 €ko dirulaguntza ematea, 2009ko uztailaren 15ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak 2009 urteari dagokion dirulaguntzaren erdia ordaintzea erabaki zuen. Orain bigarrenengo erdia ordaintzeko buruz kultur batzordeburuak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bere partaide guztien adostasunarekin, BOST MILA HIRUEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU (5.354 €) euroko dirulaguntza onartzea erabakitzen du.

Goierriko Euskal Eskolari, Mintzalagun Proiektuagatik.-

Mintzalaguna proiektuari dirulaguntza emateko Kultura Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Mintzalaguna Proiektuaren 2009ko urtariletik ekainera bitarteko jardunarengatik, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMABOST EURO eta HIRUROGEI ZENTIMO (7.815,02 €)tako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Lazkaoko Kultura taldeei.-

Kultura Batzordek 2009ko jarduerengatik herriko kultura taldeei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak guztira HOGEITA BAT MILA HIRUEHUN ETA BOST EUROKO (21.305 €) dirulaguntzak ematea erabakitzen du. Dirulaguntzen banaketa ondorengoa da:

	Taldea	Zenbatekoa	
	- OIN ARIN	4.216 €	
	- ANTZAR GAZTEAK TXISTULARIAK	500 €	
	- MONJA ZISTERTARRAK	315 €	
	- LAZKAO ABESBATZA	640 €	
	- AZKI	264 €	
	- RWANDA	560 €	
	- ANSOATEGI	4.000 €	
	- ZAWOPI	4.930 €	
	- KANTAKA	5.000 €	
	- XANBE	2.000 €	
	- BERTSO ESKOLA	920 €	
	- JUNDAJO TXARANGA	2.000 €	
	- BENEDITARRAK	2.500 €	
	- GERRIKO LIBURUDENDA	2.000 €	
	GUZTIRA	29.845 €	



Diru kopuru hauetan lehendik aurreratuta emandako batzuk daude, Oin Arini 3.500 €, Kantakari 3.000 €, Bertso Eskolari 920 € eta Zawopiri 930 € hain zuzen ere.

* Bestalde Gerriko Liburudendari onartzen zaion 2.000 € eguberritako liburu azokan egiten diren salmentengatik ordaintzen zaion %10ari dgokiona da eta beraz ordainke-ta salmenten arabera izango da, beti ere 2.000 € muga honekin.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

2009ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	7.100,00 €
Pelota taldea	1.544,00 €
Areto futbol gizonezkoena	975,00 €
Atletismo taldea	957,00 €
Mendi taldea	887,00 €
Txirrindulari elkarte	100,00 €
GUZTIRA	11.563,00 €

VI.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIAREN ERAIKUNTZAREN 7. OBRA EGIAZTAGIRIA ETA IRAILEKO ETA URRIKO OSASUN ETA SEGURTASUN KOORDINATZAILEAREN FAKTUREI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZA ONARTZEA.-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitzan eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen zazpigarren obra-egiaztagiria, 42.050,22 €koa eta lanen osasun eta segurtasunaren koordinazioaren 2009ko iraila eta urriari dagozkien eta bakoitza 406 eurotakoa den fakturak ikusi ondoren, obra egiaztagiri eta faktura hauei udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diela kontutan izanda eta agiriritegi honen eraikuntzarako Aita Beneditarrak eta Lazkaoko Udalaren artean izanpetuta dagoen hitzarmenaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Beneditarrei, obra-egiaztagiri eta fakturen guztizko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza, hau da, ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO eta LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (7.350,87 €) ematea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zapiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



1. 10

2. 10

3. 10

4. 10

5. 10

$$H_2 = H_1 + \frac{1}{2} \frac{dH_1}{dt} = H_1 + \frac{1}{2} \frac{dH_1}{dt} \cdot \frac{1}{H_1} \cdot H_1$$

6.